

KADIREN JOKOA

HAUR TALDEA : Talde ttipiak (6 edo 7 haur talde bakoitzean)

TOKIA : aterpean edo toki zabal batean. Haur bakoitzak badu kadira bat jartzeko.

Kadirak ingurutxo ttipiak bezala emanak dira eta musika tresna prest da.

HELBURUA : kadira baten gainean jarri musika gelditzen delarik.

AURKEZPENA :

- **Haurrak jarri dira kadiretan.**
- **Musika entzuten dutelarik haurrak xutitzen dira eta ibiltzen dira kadiren ingurutxoaren inguruan.**
- **Musika gelditzen delarik, jarri behar dira kadira baten gainean.**
- **Kadirarik ez duenak galtzen du.**
Hastapenean, hurrek uler dezaten jokoaren araua, kadira bat izanen da haur bakoitzarentzat. Erakasleak segur delarik araua ulertua izan dela, kadira bat kenduko du talde bakoitzean eta hor jokia zinez hasiko da.
Hurrek erraten dute jarri ez direnei nun diren toki libreak (“hemen bada tokia”).
Polliki polliki hurrek kentzen dituzte kadirak eta bati uzten ahal zaio ere musika gelditzeko ardura